

herrera-bidebieta

Elena Rubio: atezainak entrenatzaile propioa behar luke

Elena Rubiok hamaika urtez geroztik jokatzeko eskubaloiean. Orain 26 urte ditu eta Corte Blanco Bidebieta taldeko atezaina da. Estatuko lehen mailara igotzearen ondoren, oso urduri nengoen nire postuan.

ZER SUPOSATU DU ZUREZTAT SARI HONEK?

Nik ez nuen espero, gainera, aurtengo txapelketa hasi orduko, eta urte beteko atsedena hartu ondoren, oso urduri nengoen nire postuan.

Egia da bestalde, bi partidu on egin nituela eta horrek eragina eduki ahal izan du sariaren azken erabakia hartzerako orduan.

Jokalariarentzat garrantzitsua da, morala igotzeko eta zure buruari bide onean zoazela esateko.

ZEIN DA ATEZAIN BATEK



Imanol

ESKUBALOIAN BETE BEHAR DUEN PAPEREA?

Atezaina defentsaren oinarri nagusia da, horregatik beharrezkoa da jokalariren artean erlazio ona izatea. Atezainak dena ikusten du eta bere lana hutsuneak betetzea izan daiteke.

-NOLAKOA DA ESKUBALOKO ENTRENAMENDU SAIOA?

Entrenamendu mailan, atezainak eta ekipoak bi mundu ezberdin errepresentatzen dituzte. Alde batetik atezainak dauzka bere kirol beharrei egokitutako saioak, elastizitatea, indarra etab. eta beste-

tik, ekipo osoarenak. Hala eta guztiz ere entrenamendua saioetan atezainak erdibana lan egiten du, bere taldeko partaideekin eta bakarrik.

ZER ESAN DEZAKEZU ENTRENADOREEK BETETZEN DUTEN PAPERAZ?

Begira nire ustez eta kontutan izanik atezainak eta ekipoak entrenamendu ezberdinak dituztela, entrenadore ezberdinak izan behar lituzke atezainak. Certatzen dena da eskubaloian gaur egun diru asko manejatzen dela eta behar bada honekin eskubaloia kirola bezala alde

batara uzten ari da.

ZER DIOZU ATZERRITAR JOKALARIAK EKARTZEAZ?

Begira ondo iruditzen zait jokalaria onak badira dirua irabaztea, baina horrek ez du esanahi kanpotar jokalaria onak direnik. Hau da, gaur egun bakarrik kanpotarrek jasotzen dute dirua, onak ala txarrak izan, hilerohilerohi dirua eskura iristen zaie. Aldiz hemengo jokalariek bere maila erakutsi behar dute, zelaian leku finko bat eduki nahi badute eta nahiz eta kanpotarrak baina hobeto jokatzen eta hori ez dago batere ondo.

NOLA DAGO ARAUTUTA ATZERRITARREN ARAZOA?

Talde bakoitzeko gehienek 3 atzerritar egon daitezke baina kontutan izanik eskubaloian 7 jokalaririk jokatzeko dutela bertako lau jokalaririk izango lukete jokatzeko aukera. Baina atzerritarrik egongo ez balitz 7 jokalaria bertakoak izango lirateke eta guztientzat aukera bat egongo litzateke.

LARRAIZ GARMENDIA (Tfnos.: 391267)

CALZADOS
ZABALO

• Oinetakoak
• Poltsak eta osagaiak

Larratxo 16,
39 14 15 DONOSTIA

intxaurrondo

IV.
gastronomia
astea

Intxaurrondoko Gastronomia Elkarteak eta Larrotxene Kultur Etxeak programa zabala prestatu digute maiatzaren 30etik ekainaren 5a bitartean.

Hainbat gai interesgarri ikutuko da asteen zehar egingo diren hitzaldietan: jatorrizko deitura duten ardo euskaldunak, Nafarroako barazkiak, sukaldaritza komunikabideetan, garagardoa eta elikadura eta dieta zenbaiten iruzurra. Aipatzekoa da sukaldaritza komunikabideetan gaia aztertzeke Argiñano, Arzak eta Subijana sukaldariak izango ditugula.

Bi herrikuntza ere aipa ditzekegu: batetik, Garagardoaren Festa, kioskoan 300 lagunentzat karpa bat



jarriko da, bertan garagardoa, Alemaniako saltxitxak, e.a. prezio merkean hartzeko aukera egongo delarik. Bestetik, I. Gazta Lehiaketa, Juan Mari Arzak saria barne.


Ohitura den bezala, afariak antolatuko dira Artzak-Ortzeok Elkarteetan. Azken eguneko omenaldi afaria Hilario Arbelaitz, Iñaki Garate eta Bodegas Chivite-ri egingo zaie. Afarietarako sarrerak Kultur Etxean jaso daitezke.

NAGORE IRASORZA (Tfnoa.: 28 57 49)

Marrazki lehiaketaren
sari banaketa

maiatzaren 20an Larrotxene Kultur Etxean, III. marrazki eta idazlan lehiaketako sariak banatu ziren. Intxaurrondoko Internazional Kirol Elkarteak antolatutako lehiaketa honek aurten ere haur kopuru handiaren parte hartzea izan du. Lau kategoria desberdinetan banatuta, guztira 291 lan aurkeztu dira, parte hartzaileak sei eskoletakoak izan direlarik, gehienak 7. eta 8. mailakoak: Intxaurrondo Ikas-

tola, English School, Colegia Lanorous, Ategorrieta Ikastetxe Publikoa, Maria Auxiliadora eta Colegio La Asuncion. Internazionalaren helburua lehiaketa honenkin, kirola zabaldu eta bultzatzea da eta sariak ahal den jende gehienaren artean banatu nahi izan dira. Lanak euskaraz eta gazteleraz aurkeztu dira, %30a euskaraz izan direlarik. Antolatzaileak oso pozik agertu dira lehiaketarekin eta alde horretatik jarraitzeko asmoa dute.



Imanol

barne
Barne barneko boufiquea
Iparragirre, 17 Tfnoa.: 28 04 78 DONOSTIA

foto
Diypk
Kolon pasealekua, 10
28 41 88
DONOSTIA

AZKUNE E H U N A
• Maindireak • koltxak • manteleria • gortinak, ...
Sekundino Esnaola, 7 Tfnoa: 27 24 48 DONOSTIA

ARIZALA
AUDIO CARS
Ramon y Cajal 3, 27 43 07 DONOSTIA